




INAUTEAK

LEITZA, SUNBILLA, ITUREN, ZUBIETA ETA AURTIZ

2026

ttipi-ttapa | 893 zk. | 2026-01-15



LEITZAKO IHAUTEAK



Ilbeltzak 23, ostirala

Goizean, Erleta eskolako ikasleek kalejira egingen dute taldetan banatuta eskolatik plazara.

Ilbeltzak 24, larunbata

14:00etan eskelariak bazkaria izanen dute Aurrera Elkartean. 16:00etan auzoetako eskea egingen dute txistulari eta trikitilariekin. 23:30etik aurrera karaokea eta festa izanen dute Atekabeltzen.

Ilbeltzak 25, igandea

12:00etan gurdien irteera eta mozo-
roen kalejira Incansables txaranga-
rekin. Txu-txu trena ere ibiliko da.
14:30ean bazkaria. Ondoren Incan-
sables txarangarekin erronda. Arra-
tsaldean, txu-txu trena ibiliko da eta
iluntzean, 19:00etatik 21:00etara
musika izanen da Joxe Mendizabalen
eskutik karrapean.

Ilbeltzak 26, astelehena

09:00etan Gorritzaran, Arkiskil, Erre-
ka eta Sakulu auzoetako eskea txis-
tulariekin eta Incansables txaranga-
rekin. 17:00etan kalejira trikitilariekin

eta bukaeran txokolatea banatuko
dute plazan. 18:30etik 21:30era Xai-
bor DJ ariko da karrapean musika
jartzen umeei zuzendutako saioan.

Ilbeltzak 27, asteartea

09:30ean Erasote auzoan eskea he-
rriko txistulariekin. 11:00-14:00 eta
16:00-18:00 puzgarriak pilotalekuan.
18:30ean Atsaure kalejira herriko
musikariekin plazatik abiatuta. Ka-
rrapean erromeria izanen da 19:00eta-
tik 21:30era.

Ilbeltzak 28, asteazkena

17:00etan Mamuak ezagutzera joan
zen umea antzezlan Leitzako He-
rriko Aretoan.



**PERITZA
TABERNA**

*Ihote onak pasa
eta txintxo ibili*

**MILA ESKER
ANTOLATZAILEEI**

ZORTZIKO

LEITZA - 948 510 720

**ONGI PASA
IHOTEAK!**

gaztelu

**ONGI PASA
IHOTEAK!**

KALEFAKZIOA · SANEAMENDUA · GASA · ITURGINTZA · KLIMATIZAZIOA
BAITA ZIURTAGIRI ENERGETIKOAK ERE

Landa Behikoa Ind. 21, LEITZA T. 948 510 086
info@fontaneriagaztelu.com · www.fontaneriagaztelu.com

**ZEURE BURUARI
DENBORA ESKAINIZ ZAINDU**

Masajea, Ito Thermie,
masaje tailerrak,
Ito Thermie teknikan formazioa

Ongi pasa ihoteak!

Elbarren kalea, 43, 2. Alifnea Tel. 646 568 753

MASAJISTA
Aitziber Bergara

Maimur

ONGI PASA IHOTEAK!

· Prentsa · Opariak · Testu liburuak
· Plastikatzak · Enkuadernatzak
· Inprenta lanak · Fotokopiak

Elbarren, 15 - Herriko Plaza · LEITZA
maimurleitza@gmail.com · T/F: 948 510 146

**Leitzako
Udala**

**ONGI PASA
IHOTEAK!**

FISIOETXEA
Ane Egizabal Liata
Fisioterapeuta

ongi pasa ihoteak!

Ariketa terapeutikoak · Osteopatia · INDIBA ACTIV zentroa
K-STRETCH METODOA · Gimnasia Abdominal Hipopresiboa

Uharte Gotzaina, 8 3.C · LEITZA · T. 948 510 730

BEATRIZENEA
TABERNA-JATETXEA

ongi pasa ihoteak!

menua · otartekoak · kaxuelitak · pintxoak

Mikel Deuna, 2 · Tel: 948 510 991 · LEITZA

EROSKI city

Harategia, urdaitegia,
arraindegia, frutategia...

**Herritik atera gabe
erosketa guztiak**

Tel: 948 510 007 · 948 610 657
Elbarren, 20-71 LEITZA

ongi pasa ihoteak!

EZKAIN
Eraikuntzak S.L.

ONGI PASA IHOTEAK!

☎ 650 910 867 / 948 610 956
☎ 650 910 868 @ ezkain1@gmail.com
📍 Lizarraga, 3 - 31880 LEITZA

LEIMEN SL

Era guztietako elektrizitate lanak

LEITZA 628 725 396 Argoitz
MENDILLORRI 628 725 397 David

«Lotsak etxean utzi eta paperean sartuta, gozatzea da asmoa»

MIREN INTXAURRONDO, JOSUNE MARZOL ETA ARANTXA AZPIROZ



UTZITAKO ARGAZKIA

Karroza handi baten beharrik gabe, bada urtez urte Leitzako ihauteetako igandean arrastoa uzten duen lagun talde bat. Duela 27 urte atera ziren lehenbizikoz eta, geroztik, talde handiagoa edo txikiagoa, baina urtero eskaintzen dute beraien ikuskizun berezia: «lotsak alde batera utzita, paperean sartuta ibiltzen gara». Miren Intxaurrendoren, Josune Marzolen eta Arantxa Azpirozen hitzak dira eta hirurak bat datoz «ihauteetako igande zaleak» direla esatean.

Gaur egun, Leitzako kale nagusia kolorez janzten da ihauteetako igandean, baina 1998ra arte ez omen zen hala izaten: «Igandean ez zen deus handiegirik izaten, kultur taldekoak eta Aurrerakoak elkartu eta

eguna berreskuratzen hastea erabaki genuen. Asmo handiegirik gabe hasi ginen eta begira orain zer nolako dimentsioa hartu duen».

Urtero mozorro berri bat prestatuta zerrenda luzea osatu dute dagoeneko: «toreroak eta antitaurinoak, moda desfilea, hondartza, alderantzizko ezkontza, mimoak, ezpata dantzariak, autotxoak...». Gai bat hartu eta saiatzen dira beraien ukitu pertsonala ematen: «Berezia da ikustea gai berdina bi kuadrillei emanda ere, emaitza oso desberdina aterako litzatekeela». Barrezka gehitu dute: «gurea beti izanen litzateke etxe aldetik ibiltzeko modukoa. Gure etxeetara ez etorri traje baten bila, denak dira trapu zaharrak». Originaltasuna, ordea, ez

ONGI ETORRIAK

HDM FOOD POINT
LEITZA

ONGI PASA IHOTEAK!

Deitu eta egin zure eskaera!
848 834 091
688 648 002

Asteazken zehar
12:00-00:00

Asteburu eta jaiegunetan
12:00-02:00

Elbarren, 22 (Txoko) | LEITZA

Ettxera eramateko zerbitzua!

erran.
eus

Mendialdeko Albisteak

zaie falta «parodia, satira, kritika... badira gure moztaroren parte».

Azken ordura ez dute emaitza zein izanen den jakiten: «gaia jarri bai, baina bakoitzak berea ahal duen moduan prestatzen du. Igandera arte ez dugu jakiten besteen moztaroa nolakoa izanen den. Polita da hori. Elkartu eta lehenbiziko minutuak, elkarri begira barrez pasatzen ditugu». Badute urtero betetzen duten ohitura: «hamaiketako egin ondotik plazara joan, argazkia atera eta lehenbiziko emanaldia eskaintzen dugu. Entsegu modura ederki etortzen zaigu».

Aldez aurretik entseguen bat egiten dute, baina inprobisazioa ere ez omen da falta izaten: «bat alde batera, bestea bestera... nora joan da hura? horrek ere badu bere grazia». Aitortza txiki bat ere egin dute: «musikarekin ez dugu behin ere asmatzen. USBarekin nahiko lan izaten ditugu, pintxoak jarri eta koketan huts egiten hasten da, kablea atera dela...». Beraien musika entzuteko ere lanak: «gure karrotoari kotxeko altabozak eta bateria zahar bat erantsi eta halaxe atera izan gara. Inguruko denak, berriz, potentzia izugarriko bafleak erabiltzen dituzte».

Hainbat pasadizo

Ez da, ordea, zarata askorik atera behar jendearen arreta bereganatzeko. Barre artean gogoratu dituzte hainbat pasadizo: «urte batean ile-apaintzailez atera ginen eta jendea benetan moztzen genion ilea. Paperean ongi sartu ginen, antza, 'moztu moztu' esaten ziguten».

Bataioa ere egin zuten: «Gotzone bataiatu genuen eta karrotoan sartuta ume txikia balitz bezala ibili zen egun osoan. Apaizak bataiatzeko ura botatzen zionean irrintzia bota behar zuen eta hasi bai, hasten zen irrintzia

botatzen, baina ez zen bukatzeko gai barrez lehertzen hasten zelako eta bere aldamenean baita gu ere».

Batzuetan alde aurretik prestatutako ikuskizuna izaten da eta beste batzuetan momentuko egoerak eramaten ditu hortara: «jubilatuz ateraginen urte batean eta kasualitatea, jubilatuz betetako autobus bat etorri zen egun horretan Leitzara. Autobusa geldiarazi, ateak ireki eta hantxe sartu ginen denok barrenera, Benidormera gindoazela esanez».

Duela bi urteko ihauteetan ere bitxia izan zen beste kuadrilla batekin izan zuten trukea: «Ezpata dantzariz jantzita atera ginen, baina Ibarrolak garbitzaileei buruz esandakoei kritika eginez fregonak jarri genituen buruan. Urte hartan, kuadrilla batek Sanferminak irudikatu zituzten eta Lopenean parean bi kuadrillek topo egin genuenean, Asiron eta Ibarrolari dantzatu genien».

Lehenbiziko urtean hamar bat laguneko kuadrilla atera ziren, pixkanaka kopuruak gora egin zuen: «seme-alabak ere gurekin ateratzen ziren. Gero, lotsa pixka bat pasatzen zuten gu halako xelebrekeriak egiten ikusita eta beraien kabuz moztarotzen hasi ziren». Taldea zertxobait murriztu da, «gaur egun dozena bat izanen gara» eta aitortu dute jende berria sartzea zaila dela: «gure adinean, lehenbizikoz jendea ez da ateratzen hasten. Gustatu behar da eta mundu guztiari ez zaio giro hori gustatzen». Argi dago beraiek baietz, badirela ihautezaleak: «gainerakoan ez ginen hainbeste urtean atera izanen». Ez dute aurtengorako prestatu dutenari buruzko pistarik eman: «zer izanen den jakin nahi duenak ilbeltzaren 25ean Leitzako kale nagusira etorri beharko du».

Melo Pinturak koop.
T. 609 873 178
LEITZA
www.pinturasmelo.com
pinturasmelos@gmail.com



ongi pasa ihoteak!

leitzara taberna

Pintxo aukera zabala!

677 721 688
Uharte Gotzaina 2 LEITZA

ONGI PASA IHOTEAK!

OGI BERRI
ARTESANOS PANADEROS
KAFETEGI OKINDEGIA
948 610 974 | LEITZA



ONGI PASA IHOTEAK!

MAXI VICENTE
ERAIKUNTZAK
ongi pasa ihoteak!
Amazabal, 17 • LEITZA • 606 307 810

Lopenea
Ihote onak pasa!
Elbarren, 47 - LEITZA
606 27 35 34 - 688 64 08 34
www.lopenea.com



BOKATAK · KAXULAK
MENUA · PINTXOAK
PLATER KONBINATUAK

Lirain
Arropa-denda
Elbarren 34, LEITZA
676737856

ONGI PASA IHOTEAK!

Ongi pasa ihoteak!

GAZTAÑAGA
TABERNA

OTARTEKOAK
PINTXO BEROAK
KAXUELAK

948 610 708 - LEITZA

ONGI PASA IHOTEAK!

M

HOSTAL
MUSUNZAR

EGUNEKO MENUA | ASTEBURUKO MENUA
BOKATAK | PLATER KONBINATUAK

Elbarren, 14 | LEITZA | 622 89 95 47

kide Aholkularitza
Ongi pasa ihoteak!

Kontabilitate kudeaketa eta aholkularitza
Zerga aholkularitza
Lan aholkularitza
Enpresen sorrera eta jarraipena
Zuzenbide aholkularitza
Beste izapide batzuk

izaskun@kide.eus · www.kide.eus
LEITZA: Landa Ind. 18 - 1 · T. 948 510 990
DONOSTIA: Tolosa hiribidea, 5 - 2 · T. 943 420 348

bai euskarari euskaraz



ONGI PASA INAUTIK!

ALTZURI
MENDI LANAK - GARRAIOA
31791 SUNBILLA
altzuri@gmail.com
www.altzuri.com
M. 699 461 394 - 646 298 568

SU EGURRA • PIKETEAK
GARRAIOAK • ITXITURAK
GARBITZE MEKANIKOAK
EGUR ATERATZEAK • ESKABAZIOAK





Zurekin
DISEINUAK

KANPO NAHIZ BARNE
DISEINURAKO
BEHAR DUZUNA,
ETORRI IKUSTERA
KONPROMISORIK GABE!
Ongi pasa inauteriak!

SUKALDEAK | LURRAK | ARMAIRUAK
ATEAK | TEILATUAK | EGURLANAK




Kanttonberri, 3 BERA • Tel: 722 52 14 71



ukulu
inmobiliaria

Ongi pasa inauteriak!!



Lekueder karrika 16, Sunbilla
667 547 445 | xuban@ukulu.es



SUNBILLAKO UDALAK

Inauteri zoriontsuak
opa dizkizue
sunbilar eta bisitari guztioi



SUNBILLAKO INAUTEAK

Urtarrilak 23, ortziralea

09:00etan gazteak Ariztigain kanpian elkartuko dira gosaltzeko. Gosaltu ondotik, bi taldetan banatuko dira eta baserriz baserri ibiliko dira Joxe Angel eta Modesto akordeoilariekin. Mendaur aldekoek Fonda ostatuan bazkalduko dute eta Mea-ka aldekoek Bustitz ostatuan. Arratsaldean, 16:00etatik 19:00etara, herriko ttikienentzat musika izanen da frontoian Iñaki DJrekin. Tartean, txokolatea banatuko dute. 21:30ean herriko gazteen afaria izanen da Fonda ostatuan eta Emakumeen Afaria Ulibeltzak elkartearen. Emakume afariaren ondotik sorpresa izanen dute.

Urtarrilak 24, larunbata

10:00etan gazteek Bustitz ostatuan afalduko dute. Segidan, bi taldetan banatuko dira eta etxez etxe herriko eskea egingen dute Beñat Mitxelena eta Mikel Maia akordeoilarien laguntzarekin. Arratsaldean, 17:00etatik 20:00etara, haurrek eta gaztetxoek izanen dute bestarako aukera Ulibeltzak elkartearen J&J DJrekin diskofesta antolatu dute. Gauean gazteek afaria egingen dute Fonda ostatuan.



MAIDER PETRIRENA

Urtarrilak 25, igandea

11:00etan karrozen desfilea Ulibeltzak elkartetik hasita. Desfilean opilak, gaztainak, salda, tortilla eta ardoa banatuko dituzte ikusleen artean. Boletoak ere salgai izanen dira. Desfile bukaeran zozketak egingen dituzte plaza inguruan. Desfilea Igandea txarangak alaituko du. 14:30ean bazkaria izanen dute Ulibeltzak elkartearen. Bazkari bukaeran txaranga aterako da eta ondotik dantzaldia izanen da Lucianorekin.



IRURI
MOTOR

ONGI PASA INAUTERIAK!

Aukerako autoak
Turismo eta furgoneten salmenta
4x4 autoetan modelo guztiak | Salerosketa zerbitzua

www.irurimotor.com
T. 948 450 399 • 622 656 280
Iruña-Irun errep. zaharra | SUNBILLA



FONDA
OSTATA

DONIBANE, 7
SUNBILLA

Ongi pasa inauteriak!

«Baserrietan kantu eta kontuen artean sortzen den giroa bikaina da»

GARAIN E IRIARTE PETRIRENA SUNBILLAKO GAZTEA

Inauteetan bada mugarri izaten den adin bat: hamasei urteak betetzea. Orduan izaten dute neska-mutilek lehenbizikoz baserrietako eskean ateratzeko aukera. Garaine Iriarte Petrirenak iaz bete zituen hamasei urte eta aitortu du «gogotsu» zegoela, «urteak bete eta tradizio horren parte izateko». Aurreikuspen guztiak gainditu omen zituen bizi izandakoak: «Taldeak arrunt ongi hartu ninduen eta esperientzia zoragarria izan zen. Urduritasuna, poza... emozio askoren nahasketa». Bigarren aldiak lehenbizikoa gainditu ote dezakeen probatzeko gogotsu dago orain: «Urtarrilaren 23a ailegatu eta baserriz baserriko itzulua bertze behin egiteko».

Inautezalea da Iriarte: «urtean behin izaten den besta da eta egun horietan haur, gazte zein helduen artean herrian giro berezia sortzen da». Betidanik izan da inauteri zalea eta gogoan ditu umetako oroitzapenak: Egunero moztortzen ginen. Eskolako jaialdia egiten genuen eta larunbateko dantzaldirako eta igandeko karroza desfilerako ere ilusioz prestatzen genuen moztorroa». Umetako oroitzapenei tiraka, badu berriz ere jantzi nahiko lukeen moztorro bat: «pitufoz moztortu nahiko nuke urteren batean». Ez du aurreratu zein izanen den aurtengo moztorroa, baina ia seguru esan daiteke inauterietan



MAIDER PETRIRENA

etxeak ez duela azpian harrapatuko: «Ortziralean, goizeko bederatzietan hasi eta igande arratsa bitarte egitaraua bete-betea egoten da».

Baserrietako eskea zer den probatu ondotik, zalanztarik gabe dio gazteekin baserriz baserri ibiltzea dela berari gehien gustatzen zaiona: «Baserrietan kantu eta kontuen bueltan sortzen den giroa bikaina da». Berrogeita hamar bat lagun elkartu ziren iaz, «hamasei eta hogeita hamar urte artekoak. Gaur egun mutil gehiago daude oraindik, baina geroz eta neska gehiago animatzen gara». Hala gehitu

BERRI S.L.
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

ONGI PASA INAUTERIARIK! 948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 59 65

Zalain Ind., 42 Bera

JANARI - JENDA
MARISOL ONGI PASA INAUTERIARIK

JANARIARIK | TABAKOAK | DROGERIA | LOTERIA | PRENTSA
Kale Nagusia 7, 31790 SUNBILLA | T 948450608

JAVI PETRIRENA

Iturgintza eta elektrizitatea



**INSTALAZIO
ELEKTRIKOAK**

**EGUR ETA PELLET
GALDARAK**

AEROTERMIA

GASA

KLIMATIZAZIOA

**EGUZKI PLAKA
FOTOVOLTAIKOAK**

**INSTALAZIOEN
FINANTZIAKETA %0
(24 hilabete)**

Instalatzaille baimendua

Tel. 679 35 49 47
jpinstalazioak@gmail.com

KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea

**JAVIER IBARRA
ERAIKUNTZAK**
javieribarra@ibarraeraikuntzak.eus
699 122 815

GREMIOEN KOORDINAZIOA

Etxebizitza berriak | Zaharberritzeak Erreformak
Konponketak | Teilatutak | Harri eta hormigoi lanak
Mota guztietako igeltseritza lanak

SUNBILLAKO INAUTEAK



Lizun
GAZTANDEGIA
ONGI PASA INAUTERIARI!

Sunbilla · Tel: 948 450 862

Ongi pasa inauteriak!

sasoi

www.sasoi.eus
Leku-eder, 16 · 31791 SUNBILLA
T. 948 451 596 | info@sasoi.eus

larreta lanak sl

IGELTSU PROIEKTATUA
PLADURRA
ISOLAMENDU TERMIKOA
ISOLAMENDU AKUSTIKOA

Bera - Nafarroa
www.larretalanak.com | larretaigeltsua@gmail.com
Gorka Arretxea 627 225 514
Juanen Saralegi 637 921 299

du: «Zorionez aldatu dira garaiak eta giblean gelditu dira neskak eskean ateratzen ez ziren garaiak». Gaur egun, eskea herritarren arteko harremanak indartzeko bidea dela uste du: «herriko baserri batzuk ezagutu eta bertako bizilagunekin kantuan eta dantzan ibiltzeko aukera ederra izaten da».

Ortziralean goizeko bederatziatan egiten dute hitzordua gazteek: «kanpineko gosariarekin hasten dugu eguna. Gero, bi taldetan banatzen gara eta, akordeoilari batek lagunduta, tokatutako baserrietako bidari ekiten diogu. Egun osoan baserriz baserri ibili eta, tartean, herrira bazkaltzera jaisten gara». Arratsean, eskeko atorra eta koloretako zapia etxean utzi eta lehenbiziko mozorroa jartzen du soinean: «erositako zerbait izaten da normalean. Eguberrietan hasten naiz prestaketa lanetan». Larunbatean, herriko etxean txanda izaten da: «egun osoan ibiltzen gara inauteri giro alaia batean eta bertzean zabaltzen». Igandea, berriz, lotsak etxean utzi eta lagunekin gozatzeko eguna izaten dela dio: «Kuadrillakoekin gosalduta, mozorrotu eta karrozen desfilean

ateratzen gara». Pasa den urtean aukeratutako mozorroak jolaserako aukera eman zieten: «autotxoak egin genituen eta arrunt ongi pasa genuen». Desfilea bukatzen denean, ez da bukatzen besta: «kuadrillakoekin bazkalduta eta arratsaldean Ulibeltzak Elkartean izaten den dantzaldian inauteetako azken orduak aprobetxatzeko ditugu». Gero, inauteetako balantzea egitean, galdetu beharko zaio bigarren aldiak lehenbizikoak bezain onak ote diren.



MAIDER PETRIRENA



BIDASOA
GURPILAK - GASOLINDEGIAK
1999. URTETIK

GASOLIOA ETXERA
eramaten dugu

PARTIKULAR ETA GARRAIOLARIENTZAT ZERBITZU ANITZAK

Ibilgailu guztietarako gurpil eskaintza bereziak
24h-ko asistentziak errepideetan
IAT aurreko zerbitzua dohainik
Gasolindegia 24h irekita



☎ **609 446 693 - 679 204 872**

bidasoa@neumaticosbidasoa.es

www.neumaticosbidasoa.es

Eska ezazu BIDASOA txartela erregaian deskontuak izateko

📍 **Alkaiaga Industrialdea**
Ziobi Kalea 6
31770 Lesaka (Nafarroa)
948 625 663 - 636 293 125

Ongi pasa inauteriak!

📍 **Noain-Eskiroz Industrialdea**
Y Kalea 10
31110 Noain (Nafarroa)
948 312 239 - 679 204 872



ZUBIETA, ITUREN ETA AURTIZKO INAUTEAK

Ilbeltzak 26, astelehena

Goizean gosalduta eta Zubietako joaldun, mozerro eta karrozek Aurtitz bisitatuko dute. Salda hartu eta Iturenera joanen dira. Desfilea eginda, bakoitza bere herrira joanen da bazkaltzera. Arratsaldean musika izanen dute eta gauen afaria.

Ilbeltzak 27, asteartea

Goizean gosalduta eta iturendarrek zubietarrei bisita egingen diete, Aurtitzen geldialdia eginez. Salda hartu, desfilea egin eta bakoitza bere herrira bazkaltzera. Arratsaldean musika izanen dute eta gauen afaria.

Ilbeltzak 28, asteazkena

Zubietan kontuen eguna izanen dute: goizean puska biltzea eta gosaria eta

arratsaldean joaldunak. Iturenen bazkaria eta ilunabarrean puska biltzea, afaria eta Holako taldearen kontzertua. Aurtitzen bazkaria, puska biltzea eta afaria.

Ilbeltzak 31, larunbata

Iturenen kontuen eguna: eguerdian dantzak eta herri kirolak izanen dira, bazkaria Julio Soto eta Joanes Illarregi bertsolariekin eta musika gaue-ra arte. Aurtitzen zahar afaria eta dantzaldia akordeoilariarekin.

Otsailak 1, igandea

Aurtitzen kontuen eguna izanen dute: bazkaria eta inauterien amaiera.



IZASKUN ZUBIALDE

Asteazkenetik igandera irekita.

AURTIZKO OSTATUA

Errazioak, eguneko menuak, bokatak, pizzak, hanburgesak, plater konbinatuak...

Baja, 18 Aurtitz | ☎ 848 68 05 57 | aurtizkoostatua@gmail.com

ONGI PASA INAUTERIAKI!

Iturengo eta Zubietako Udalek
inauteri zoriontsuak
opa dizkizute herritar eta bisitari guztiei

ITURENGO UDALA ZUBIETAKO UDALA

Reyno de Navarra Nafarroako Erresuma

ECHEVERRIA
ZURGINDEGIA

PVC LEIHOAK

ABANTAILAK

ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE

Egiturak	Eskailerak	Ateak	Lurrak
Armairuak	Sukaldeak	Egurnezko leihoak	Leiho mistoak

Leitza errep. · 31745 ITUREN
M. 676 393 996 · T. 948 388 455 · F. 948 456 164
carpinteriaecheverria@yahoo.es

Ileapaindegia
EIDEA
Estetika

Asteartea | ortzeguna | larunbata: 09:00 - 14:00
Asteazkena jarraian: 11:30etik aitzinera
Ortziralea: 15:00 - 20:00

Kontsejo, 6 | ITUREN | T. 630 633 445 - 618 124 374



MADERAS SANTESTEBAN Ongi pasa inauteriak!

Mendi lanak Pinuak erosten ditugu
Bigak | Montajea obran
Teilaturako egiturak
Izei, haritz eta douglas edo laminatua
Osagarriak | Autoklabe tratamendua

www.maderasantesteban.com

Arrazo parajea, ZUBIETA | 948 45 08 77
info@maderasantesteban.com



egurpellet

PELLET ZAKUAK ETXERAINO

egurpellet.com
info@egurpellet.com
T 623 246 300




«Inauterietan edozein ordutan dago ongi pasatzeko aukera»

WILLIAM ANDRES ETXEBESTE ITURENGO GAZTEA



UTZITAKO ARGAZKIA

Inauteetarako falta diren egunak ongi zenbatuak ditu William Andres Echeveste iturendarrak: «inautezalea naiz oso eta gogotsu egoten naiz esperoan. Urte batetik bertzerako tartea nahi baino luzeagoa izaten da». Inauteetan sortzen den giroa azpimarratu nahi izan du: «Giro sanoa izaten dugu herrian. Gazteak zaharrekin eta zaharrak gazteekin elkartzen gara eta hori oso polita iruditzen zait». Aitortza txiki bat ere egin du: «Inauteen bueltan izaten diren momenturik hobeneretako batzuk, kuadrilla juntatu eta karroza eta mozorroak prestatzen ditugunean sortzen dira».

Ez da konformatzen inauteak azaletik bizita eta «ahalik eta gehien gozatzen» saiatzen da: «Besta goizean goiz hasi eta gorputzak irauten duen arte ibiltzen gara. Ordutegi zehatzik gabe, norberak hartzen dio neurria». Herriko ganbara izaten da egun horietan elkargunea: «bertan egiten ditugu eguneko otordu guztiak eta nahikoa dantza eta irri izaten da... Etxera joan, zertxobait deskantsatu, edozein mozorro edo trapu zahar paratu eta tira, berriz ere, bestara!». Horixe da, bere ustez, inauteen bereizgarrietako bat, «edozein ordutan dagoela ongi pasatzeko aukera». Lehendabiziko larunbata da, bere ustez, inauteetako egunik politena: «Jendea gogotsu egoten da eta

nabaritzen da hori». Inauteetako momenturik bereziena aipatzeko eskatutakoan, zalantzarik gabe dio: «Astelehenean, karrozak, mozorroak eta joaldunak plazan elkartzen diren momentua» dela politena. Joareak astinduz eta mozorroaren babesean ingurukoak zirikatzen, bietan aritu izan da Andres: «nahiz eta orain joareak pixka bat alde batera utziak ditudan». Gogoan ditu umetako oroitzapenak: «joaldunak pila bat gustatzen zitzaizkidan». Oso gaztea zen lehenbizikoz joareak jantzi zituenean: «Kolonbiatik hiru urterekin etorri nintzen eta handik bi urtetara, lehenbiziko aldiz jantzi nituen. Oroitzen naiz etxean aitzak jantzi eta sotoan bueltaka jo eta jo aritzen nintzela. Gero, pixkana hasi eta desfilean atera izan naiz behin baino gehiagotan». Orain, joaldun baino nahiago du mozorro atera: «umea nintzela hartza eta mozorroak ikusita, ikaratu egiten nintzen. Orain ni naiz saltsan sartuta, bertzeak zirikatzen ibiltzen dena. Bakarren bat ikaratuko da, akaso, gu ikusitakoan». Urtero mozorro desberdinak egiten dituzte eta ezin bakarria aukeratu: «denek badute bere grazia». Eta seguru, aurrez prestatutakoak bezainbertzeko xarma duela, bestondoa gainean, etxeko trapuekin azken orduan osatzen duen mozorroak: «Inprobisazioa ere bai baita, inauteen parte».

«Mozorro ateratzeko baldintza bakarra, ongi pasatzeko gogoa da»

EKIÑE MINDEGIA BALEZTENA AURTIZKO GAZTEA

Inauteak «urte osoko bestarik hoberenak» direla dio Ekiñe Mindegia Baleztena aurtiztarrek: «adin guzietako herritarrak elkartean biltze hori da niretzat berexiena. Zazpi egunez elkarrekin egoten gara goizean goizetik hasi eta goizaldeko ordu txikiak arte».

Eguberri inguruan hasi zituzten prestaketa lanak: «kuadrillarekin elkartu eta mozorrotzeko ideiak pentsatzen hasten gara eta urtarrilean osatzen dugu mozorroa. Beharrezko gauzak erosi, etxean ditugunak moldatu edo elkarri utzita». Tenorez hasi arren, azken asteetan lotzen dituzte xehetasun guztiak: «prestaketa lan horien aitzakian gehiagotan elkartu eta ederki pasatzen dugu».

Ttikitatik izan du mozorrotzeko afizioa: «Oroitzen naiz ttikitan ahizpak beti mozorroren bat erosten zidala. Gero, etxeko trapu zaharrak hartu eta lagunekin mozorrotzen hasi nintzen». Azkar ikasi zuen zein zen goatzeko sekretua: «mozorro ateratzeko baldintza bakarra ongi pasatzeko gogoa da, hori gabe ezinezkoa da. Oso ongi pasatzen dut ezagutzen dudan jendeari zirikan».

Hamabi edo hamahiru urte izanen zituen lehenengo aldiz karroza egin zutenean eta gogoan ditu lehenbiziko aldi hartako urduritasunak: «dena ongi ateratzea nahi genuen, baina oraindik oso gazteak ginen eta beldur puntu bat ematen ziguten bertze mozorroek». Gero, gustura ibili ziren nonbait, «geroztik, urtero egin dugu zerbait».

Zazpi egunez besta

Trikitiaren hauspoa gogoz astinduz hasten ditu inauteak Mindegiak: «Lehenbiziko ortzegunean, puxkak biltzen ditugu. Egun horretan guk jotzen dugu trikitia eta ondotik afaria izaten dugu elkartean». Larunbatean eta igandean segida izaten du bestak: «larunbatean afaria izaten dugu eta parranda. Igandean kuadrillarekin aperitiboa hartu, bazkaldu eta dantzaldia izaten dugu. Azken hiru



UTZITAKO ARGAZKIA

urteetan, herritarrak mozorrotzen hasi gara bazkariara joateko. Ilunabarrean puxka biltzea egiten dugu eta giro izugarria izaten dugu. Bukatzeko, elkarrekin afaltzen dugu elkartean».

Biharamunean, beretzat «inauteetako egunik bereziena» dena heldu da: «astelehen goizean elkartera joaten gara gosaria antolatzen laguntzera. Gosalduta eta mahai inguruan kantuan aritu ondotik, puxkak biltzen ditugu. Azken urteetan izugarritzko giroa izan dugu musikari dexente elkartzen direlako. Handik mozorrotzera joaten gara, Iturenara bixita egin, elkartean bazkaldu eta bestarekin segitzen dugu». Asteartean eta larunbatean ere, izaten dute ongi pasatzeko nahikoa aukera eta igandean, «kontuak egin eta bazkariarekin» borobiltzen dituzte inauteak.

Herrien arteko lotura

Inguruko herrien arteko lotura ere irudikatzen dute inauteak: «momentu batean edo bertzean Aurtizko, Iturenko eta Zubietako herritarrak elkartzen gara. Elkarri bixita egiten diogu eta polita izaten da konexio hori».

Atzerako kontaketa hasi da trikitia astindu, etxeko trapu zaharrei hautsa kendu eta Aurtizko elkartea inautezaleen aterpe bihurtzeko.

ITTUNGO
HERRIKO OSTATUAK

INAUTE ON BATZUK
OPA DIZKIZUE

948 451 346



AINHOA
ALTZUGUREN MITXELENA
ABOKATUA

Dibortzioak | Kontratuak | Arazo administratiboak
BERA | M. 630 972 189 | ainhoaaltzuguren@gmail.com

ZERBITZUA
EUSKARAZ

BEROTZA

ITURGINTZA, BEROKUNTZA
ETA ELEKTRIZITATE INSTALAZIOAK

948 450 063-609 614 214
info@berotza.es-www.berotza.es
31745 ITUREN (Na)



EGUZKI PLAKAK




BEROGAILUA



GALDARA MISTOA



GALDARA



AEROTERMIA ETA GEOTERMIA